

Enplegua hazi egin da Bioteknologiako I+Gn, baina gastua %0,3 gutxitu da, 2012an Euskal AEn

Langileen %61 emakumezkoak dira

Barne-gastua Bioteknologiako I+Gn 85,6 milioi izan zen 2012an Euskal AEn, Eustaten datuen arabera 2011ko gastuaren aldean bioteknologiako barne-gastua %0,3 gutxitu da; I+G barne-gastu guztiaren %6,2 izan zen, aurreko urtean %6,3 izan zelarik.

Langileak, 1.613 pertsona; dedikazio osoko baliokidetzan, 1.082. Aurreko urtearen aldean %4,7 hazi eta I+G langile guztien %5,8 dira. Nabarmentzekoa da emakume-kopurua: bioteknologian lanaldi osoan ari direnen %61,2. Ikertzaileak 810 dira; 2011n 753 ziren, beraz %7,6 hazi da kopurua.

1. taula: Bioteknologiako barneko I+G: gastuaren eta langileen bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2007-2012

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Barneko I+Gko gastuak						
Guztira (mila eurotan)	80.842	91.583	80.557	87.401	85.941	85.646
Urteko Gehikuntza (%)		13,3	-12,0	8,5	-1,7	-0,3
Langileak (DOB)						
Guztira (mila eurotan)	779,2	826,8	898,9	1027,3	1032,9	1.081,8
Urteko Gehikuntza (%)		6,1	8,7	14,3	0,5	4,7
Ikertzaileak (DOB)						
Guztira (mila eurotan)	640,6	679,9	739,7	797,0	752,6	809,8
Urteko Gehikuntza (%)		6,1	8,8	7,7	-5,6	7,6

DOB= Dedikazio Osoko Baliokidetzak

Iturria: Eustat. Euskal AEko Bioteknologiako I+Gri buruzko estatistika

90 erakunde aritu ziren bioteknologiako ikerketan 2012an; 58rentzat jarduera nagusia edo bakarra zen, bioteknologiako I+G barne-gastuaren erdia pasa. 76 enpresa sektorekoak dira.

Enpresa sektorean jaitsi egin da barne-gastua

Aurreko urteetan bezala, enpresetan da Bioteknologiako I+G guztizko barne-gastuaren portzentajerik handiena (%58,1), 2011an (%60,8) baino gutxiago bada ere.

Gainerako sektoreek, Goi mailako irakaskuntzak (%36,4) eta Administrazio publikoak (%5,5), gastuaren gainerako %41,9 egikaritu zuten 2012an; %39,2 2011n.


Administrazio publikoak bioteknologiako I+Gren %62,2 finantzatzen du

Funtsen jatorriaren arabera Bioteknologiarekin lotutako barne I+G jarduerak batez ere Administrazio Publikoak (%62,2) eta Enpresek (%25,4) finantzatu zituzten. Atzerritik (%6,9), Goi mailako irakaskuntzatik (%2,9) eta Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuetatik (%2,6) etorritako funtsekin finantzatu zen gainerakoa. Bioteknologiako ikerketaz lortutako

produktuak batez ere Giza osasunean (%77,1) erabiltzen dira. Elikadura, Nekazaritza eta baso-ekoizpena, Ingurumena, Animalien osasuna, Akuikultura eta Industria arloek gainerako %22,9 antzeko portzentajeekin banatzen dute.

Produktu eta prozesu bioteknologikoen garapen eta merkaturatzea zailtzen duten oztopo nagusiak, 2012an: I+G egiteko denbora/kostua erlazioa (%90,0) eta Kapitalerako irisbidea (%85,6).

1. grafikoa: Bioteknologiako I+G garatzeko oztopoak (%). 2012



Iturria: Eustat. Euskal Aeko Bioteknologiako I+Gri buruzko estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal Aeko I+G bioteknologiari buruzko prentsa-ohar gehiago